



**ITSASONDOKO
UDALA**



UDAL TRAMITEAK, TASA, ZERGAK ETA HILERRIARI BURUZ ITSASONDOKO UDALAK HARTUTAKO ERABAKIAK 2020-03-27

Covid-19aren testuinguru honetan, sortu den egoerari aurre egiteko arduraz, pertsonen segurtasuna bermatzeko eta krisialdi honek sortu ditzakeen kalte ekonomikoak herritarrei ahal den neurrian ekiditeko hainbat erabaki hartu ditu Itsasondoko Udalak alkate dekretuaren bidez.

Hala, udal izapide guztiak etenda geratu dira eta alarma-egoerak indarra galtzen duenean, berrabiaraziko dira. Hala ere, eskaerak aurkezteko aukera izango dute, ziurtagiri digitala edukita, www.itsasondo.eus webgunearen bidez (**zerbitzu telematikoan on line**) bide elektronikoa erabiliz, edo horrela ezin denean, eskaerak itsasondo@udal.gipuzkoa.net korreo elektronikora zuzenduz.

Hileta-agurrak COVID-19 birusaz kutsatzeko foku izan ez daitezzen ere neurriak hartu dira. Honela, hildako hurbilekoen agurrak intimitaterik zorrotzenez egingo dira, eta hilerrian agur edo erresponstu labur bat baino ezin izango da egin, gehienez ere 15 pertsonekin eta zorrotz gordeta pertsonen arteko gutxienezko metro eta erdiko segurtasun-tartea.

Eran berean, COVID19-aren ondorioz hildako pertsonen kasuan, gorpua erraustea gomendatzen da. Ez erraustekotan, gorpua hilobiratu edo lurperatzerakoan lan hau burutuko duen langilearen segurtasuna bermatzeko, beilatokitik behar diren neurriak hartu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Azkenik, dekretu honek udal **ZERGAK eta TASAK** ordaintzeko epeak etenda utzi ditu **ALARMA** egoera amaitu arte. Orduan jakinaraziko dira egutegi fiskaleko epe berriak edo bestelako neurriak.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zergari dagokionez, ordaintzeko borondatezko epean dago eta alarma egoera amaitzen denetik hilabeteko epea emango da ordainketa egiteko. Helbideratutako erreziboak kobratu dira agindua aurrez emana genuelako, baina Itsasondoko Udalak ordainketak zatikatu edo atzeratzeko malgutasuna izango du, titularrek kontu-hartzailletza sailari hala eskatzen badiote. Eskaera hauek alarma egoera amaitzen denetik hilabeteko epean aurkeztu ahal izango dira.

2020ko 1. Lauhilabeteko zabor bilketa zerbitzuko tasaren kobrantza eta 2020ko 1. Hiruhilabeteko ur hornidura zerbitzuko tasaren erreziboen kobrantzari dagozkion erreziboak, alarma egoera amaitu ondoren kobratuko dira, orduan jakinaraziko diren epe berrietan.

Ondasun higiezin OHZ gaineko zergak borondatezko aldian ordaintzeko epeak 2020ko abuztuaren 1etik 2020ko irailaren 15era atzeratu ditu Foru Aldundiak.

Itsasondon, 2020ko martxoaren 27an.

Alkatea,